

DUKESAREN ETA HERRIAREN GAILETA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**
@irazustabarrena

San Petersburgo, 1874ko urtarrilaren 23a. Maria Aleksandrovna dukesa handia –Errusiako Alexander II.a tsarraren alaba– eta Ingalaterrako Alfred printzea –Edinburgoko dukea, Viktoria erreginaren laugarren semea– ezkondu ziren Neguko Jauregian. Urteko ezkontzaren aitzakian, bi gozogile ingelesek, James Peek eta George Hender Freanek, gaileta mota berri bat prestatu zuten eta ezkongai errusiarraren izena ipini zioten: *Marie biscuit*.

Gozoki berria espresuki bostetako tea-rekin hartzeko sortu zuten, ordura arte egunero kontsumitu ohi zituzten gailetetek busti eta berehala desagiteko joera ezatsegina baitzeukaten. Peek, Frean & Co konpainiak ekoiztutakoek, aldiz, duin eta kurruskari eusten zieten murgilei. Produktua prest zeukaten ezkontza baino lehen ere, baina publizitate egokia behar zuten kontsumitzaile britainiarak liluratzeko. Ez zen garaiko pertsona ezagun baten izena zeukan lehen gozokia; Victoria erreginak, Albert printzeak edo Garibaldik ere beren gailetak zituzten. Eta hala, errege familiarekin lotuta, produktuak bide samurragoa izan zuen merkatu britainiarrean, lehenik, eta atzerrian, aurrerago.

Maria gailetan jatorriari buruzko beste bertsio oker bat zabaldu da luzaroan: Eugenio Fontaneda espainiarrak asma-tu zituela eta Maria bilobaren izena jarri ziela. Baina Espainian kontsumitu ziren lehen Maria gailetak Peek & Freanek berak ekoiztutakoak ziren. Inportatutako gaileta horiek, ordea, oso garestiak ziren, 5,5 pezeta kiloak.

Espainiako Estatuko lehen Maria gailetak Gipuzkoan ekoiztu zituzten, Errenteriako Olibeten. 1886an sortutako fabrikak oragailu mekanikoak, ijazkailuak eta estatuko lehen kate-labeak zituen. Hala, prezioa erdira jaitsi zen, 2,5 pezeta kiloak, baina luxuzko produktua zen



Errenterian egiten ziren Maria Olibet gailetan iragarkia. Juan Ramón Jiménez Nobel saridunak oso gustuko omen zituen.

oraindik. Juan Ramón Jiménez idazlearentzat behintzat bai. Zenobia Camprubi idazle eta hizkuntzalariak, erbestean zela, zera idatzi zion Juan Guerrero Ruiz editoreari: “Ezusteko handiena J.R. rentzat Maria Olibet gailetak lirateke, gauza legendario eta eskuraezintzat jotzen baititu beti”.

Aurrerago Bilbon 1907an sortutako Artiach eta Fontaneda bera hasi ziren Mariak egiten. Baina benetako bultzada 36ko gerra amaituta jasoko zuten gailetetek, frankismoaren babesean. 1950eko hamarkadan, irin eta azukre gainproduktzioa Gaztela Mantxako –nagusiki, Palentziako– industria gailetagilera bideratu zuten eta erregimenak Espainiaren susperraldi ekonomikoaren ikurretako bat bihurtu nahi izan zuen Maria.

Baina Maria fenomeno bat beste herrialde askotan ere zabaldu zen, kostua merketu ahala. Egun, munduko 40tik gora herrialdetan ekoizten dira. Eta, abizenak abizen, ia denek dute dukesa handiaren izena: Maria, Marie, Marietta, Mariya, Mariebon, Mariakaakje, Mariekjeks... ■

